




DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN 2016
EUROPAKO KULTUR HIRIBURUA
DSS2016.EU



EUSKARAREN GIZARTE ERAKUNDEEN
KONTSEILUA



GIDALIBURUA



Protocol to Ensure Language Rights
Protocole pour la Garantie des Droits Linguistiques
Protocolo para la Garantía de los Derechos Lingüísticos
Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloa

AURKIBIDEA

I. PROTOKOLOAZ	5
1. PROIEKTUAREN HELBURUAZ	5
2. ZERGATIK PROTOKOLO BAT?	6
3. PARTAIDEAK ETA ORAIN ARTEKO LANKETA	6
4. PROTOKOLOAREN HEZURDURA	11
5. ERREFERENTZIAK	12
6. NOLA ERABILI GIDALIBURU HAU?	12
II. FITXAK	15
FITXAK BETETZEKO JARRAIBIDEAK	16
1. PRINTZIPIO OROKORRAK, DISKRIMINAZIOA, ESKUBIDEAK	18
2. ADMINISTRAZIO PUBLIKOA	20
3. HEZKUNTZA	22
4. EREMU SOZIOEKONOMIKOA	24
5. ONOMASTIKA	26
6. HEDABIDEAK ETA TEKNOLOGIA BERRIAK	28
7. KULTURA	30
8. UNESCOren bizitasun mailak eta faktoreak	32
III. HURRENGO URRATSAK	37



I. PROTOKOLOAZ

1. PROIEKTUAREN HELBURUAZ

Hizkuntza eskubideak gizakiaren oinarrizko eskubideetan kokatu behar ditugu, zalantzarik gabe. Hizkuntzek komunikatzeko balio dute, baina hizkuntza errealitatea ezin zaio lotu bakarrik dimentsio komunikatiboari; hau da, hizkuntzak ezin dira kulturetatik bereizi. Hizkuntzen eta kulturen arteko harremana ukatzen denean, hiztunen eta herritarren duintasunari muzin egiten zaio. Hartara, hizkuntza aniztasunaren aldarrikapena pertsonen eskubide guztien defentsarako ekarpen gisa ulertzen dugu.

Horrexegatik, garatu nahi dugun dinamikak tresna bat eskaini nahi du bide honetan; hain zuzen ere, gizarte ongizatean eta elkarbizitzan laguntzeko ekarpena; bai eta bakean ere. Izan ere, hizkuntza komunitateekiko jardun demokratikoen bilakaerak giza baldintza guztiekiko errespetuaren bermea ekarriko du.

Europa osoan zehar hizkuntza komunitateak euren berezko hizkuntzetan bizi ahal izateko antolatu dira. Ehunka dira hizkuntza gutxituen garapenean, hainbat eremutatik, lan egiten duten gizarte erakundeak. Proiektu honek horien bilgune izan nahi du, Europako gizarte zibilak hizkuntza aniztasunaren garapenerako

proposamena gauzatzean lidergoa izan dezan.

Proiektu honen bidez gizarte eragileen, antolakundeen eta adituen arteko **prozesu bat zabalduko da**, hizkuntzen arteko berdintasuna bermatzeko protokolo bat jorrazteko eta horren ondorioak nazioarteko goi bilera batean aurkezteko.

Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloa (HEBP) hainbat lantaldek aurreko urteetan garatutako adoste prozesuaren emaitza izango da eta ikuspegi zientifikoa, akademikoa eta gizartearen ikuspegia bilduko ditu. **Hizkuntza gutxituen egoera irauli eta hizkuntza komunitateen arteko berdintasunean oinarritutako Europa eraikitzeke tresna.** Hortaz, proiektutik sortutako ondarea, protokoloa, nazioarteko foro eta instantzietara eramango da izaera anitzeko erakundeek hizkuntza aniztasunarekiko duten konpromisoaren arautzaile gisa erabil dezaten.

Proiektuaren aurkezpena 2015eko martxoan, Donostian



Gauzak horrela, protokolo hau osatzeko prozesuan lau helburu nagusi bete nahi dugu:

1. Hizkuntza aniztasuna bermatzea eta hizkuntzen garapena ziurtatzea, **elkarbizitza eta bakerako oinarri funtsezkoak** direla aldarrikatzea.
2. **Hizkuntza berdintasunaren alde** eta desabantaila egoeran dauden hizkuntzen garapenerako tresna eraginkorra sortzea.
3. **Hizkuntza komunitateak** prozesu honetan **subjektu** gisa agertzea eta gizartea kudeaketa justu horren berme dela aldarrikatzea.
4. Donostia eta Europako Kultur Hiriburua prozesu honetan mugarri izatea.

Eta, honekin guztiarekin, bost balore edo printzipio jorratzea aurreikusten dugu: elkarbizitza eta bakea, aniztasuna, berdintasuna, eskubiak eta baldintzak.

2. ZERGATIK PROTOKOLO BAT?

Normalean "protokolo" hitza "itun" edo "hitzarmen" bezalako adierazpenak baino formalagoak ez diren akordioak izendatzeko erabiltzen da.

Egia da, bai, Protokolo mota asko dagoela. Badiugu, esaterako, **sinadura-protokoloa**, hain zuzen ere, aldeek idatzi duten itun baten tresna subsidiarioa. **Emendakin-protokoloa** ere badago, aurretik onartutako itunak moldatzeko xehapenak jasotzen dituen. **Protokolo fakultatiboa** itun bati eskubide eta betebeharrak eransten dizkiona. Edota **protokolo osagarria**, aurretik onartutako itun bat osatzeko xehapenak biltzen dituen tresna.

Halere, guk jorratu nahi dugun Protokoloa **Itun batean oinarritutako Protokoloa** izango da. Hau da, aurretik onartutako itun edo hitzarmen baten helburua erdiesteko betebeharrak jasotzen dituen tresna bat.

Dena dela, kontuan hartuta Protokoloak 1996an onartutako Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsala (HEDU) izango duela oinarri, kasuren batean **osagarria ere izango** dela aurreikusten dugu, hain zuzen ere, hoguei urteetan gizartea aldatu egin delako eta duela bi hamarkada aurreikusi ez ziren elementuak gure eguneroko bizitzan ohiko bihurtu direlako.

HEBP zehaztu behar izan dugunean ere, egun indarrean dauden hainbat Protokolo izan dugu gogoan. Egia da, ingurumenarekin lotutakoak izan direla gureari gehien hurbiltzen zaizkionak, hain zuzen ere, protokolo horietan neurri zehatzak jasotzeko bokazioa izaten dutelako. Bestalde, interesgarria iruditatu zaigu behin Protokoloa onartuta hurrengo urratsak edota bertan jasotzen diren neurrien monitorizazioa nola egiaztatzen duten baloratzea, eta akaso, horregatik gure helburuak betetzeari begira ezaugarri interesgarrien biltzen dituen *Ozono-geruza Agortzen duten Substantziei buruzko Montrealgo Protokoloa* izan da, eta, ondorioz, hori izango dugu ardatz nagusi.

3. PARTAIDEAK ETA ORAIN ARTEKO LANKETA

Proiektuaren **sustatzaileak** Kontseilua eta DSS2016 Fundazioa dira. Haien ekimenez sortua da eta haien arduratuko dira garapen zuzena izan dezan zaintzeaz.

EUSKARAREN GIZARTE ERAKUNDEEN KONTSEILUA



KONTSEILUA euskalgintzako 40 eragile nagusien bilgunea da. KONTSEILUAren helburu nagusia euskararen normalizazio prozesua azkartzea da, eta bere misioa euskara maila pertsonal, sozial eta ofizialean berreskuratzea. Euskalgintzaren ordezkariak zabalena da eta bere eragin lana hiru esparru nagusitan betetzen du: Herrietan tokiko eragileekin egiten du lan eta maila pertsonaleko konpromisoak sustatzen ditu modu berritzailean. Instituzioetan harremanak izaten ditu administrazioekin hizkuntza politika egokiak garabidean jartzeko. Nazioartean, KONTSEILUAk bi lan ildo nagusi jorratzen ditu; batetik, gurea bezalako erakundeekin harreman iraunkorrak jorratu eta, bestetik, nazioarteko instituzioetan gure egoeraren berri eman, Europako Kontseilua edo Nazio Batuen Erakundeak. KONTSEILUA onura publikoko erakunde izendatua dago eta lehentasunezko zat jotzen den jardura egiten du.

DONOSTIA SAN SEBASTIÁN 2016 FUNDAZIOA



Europako Kultur Hiriburutza Europar Batasunaren ekimena da, Europako herrien arteko hurbiltasunean eta elkartrukean laguntzeko. Hiru helburu nagusi ditu: Europako kulturen aberastasuna, askotarikotasuna eta ezaugarri komunak nabarmentzea, europarrek elkar hobeto ezagutzea sustatzea, Europako Erkidego bereko kide izateaz jabetzen laguntzea.

2016ko Europako Kultur Hiriburutza aukera handia da kulturaren eta elkarrizketaren aldeko apustua egiteko; hiriak hori aprobetxatzea erabaki du horien bidez elkarbizitza hobea eraitzeko. Gainera, Europako gainerako herrialdeekin harremanak indartzeko eta kulturaren alorrean berrikuntza sustatzeko lan egingo da.

Proiektuak eragin berezia du herritar elkartuak lortzeko bideak iradokitzen dituzten alorrean: teknologiaren ezaguera eta erabilera sustatzen du, sormen prozesuetan bitartekari-tzaren garrantzia azpimarratzen du, hizkuntza aniztasuna bultzatzen du, herritarren ahalduntzea eta parte hartzea errazten ditu eta pentsamendu kritikoa indartzen du. DSS2016EU Fundazioa da proiektu osoaz arduratzen dena.

Protokoloaren lanketari dagokionez, Kontseiluak eta DSS2016EUK **Talde Antolatzaile** bat izendatu zuen prozesu guztiaren lidergoa hartzeko. **Sei erakunde** horiek nazioartean eskarmentu eta sona handia dute, eta zeinek bere ikuspegia emateko hautatu ziren:

Giza eskubideen, hizkuntza eskubideen, hizkuntza aniztasunaren eta hizkuntza gutxituen sustapenean diharduten gizarte erakundeen nazioarteko sareek edo gobernu kanpoko erakundeek osatuko dute Antolatzaile Taldea. Honek, proiektuaren jarraipen zuzena egingo du.

ELEN – EUROPAKO HIZKUNTZ BERDINTASUNAREN ALDEKO SAREA



ELEN europar mailako gobernu kanpoko gizarte eragileen bilgunea da. Hizkuntza gutxiagotuen eta hizkuntza eskubideen sustapenaren, babesaren eta biziberritzearen alde lan egiten du. Europako hogeita bat estatutako 42 hizkuntza

komunitate ordezkaten ditu. 2010ean sortu zen eta EBLUL (European Bureau for Lesser Used Languages – Hizkuntza Gutxiagotuen Europako Bulegoa) zena ordezkaten du. Estatutatu aholku emailea du Nazio Batuen Erakundean.

CIEMEN



CIEMEN gizarte zibil katalanaren erakundea da eta bertako errealitate nazionala munduaren aurrean ezagutarazteko eta sustatzeko lan egiten du, bai eta estaturik gabeko herrien eta nazioen ezagutza hedatzeko eta haien eskubide kolektiboak defendatzeko ere.

Hizkuntzaren eremuan, hizkuntza eskubideen defentsaren alde eta hizkuntzaren erabilera sozialaren alde bideratutako hainbat ekintza egin izan ditu. CIEMENen lan arloak hiru dira nagusiki: Ezagutzaren promozioa, nazioen eta gutxiengo etniko guztien eskubideekiko aitorpena eta elkartasuna. Azkenik, aipatu behar da CIEMENek Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsalaren idazkaritza teknikoaren ardura izan zuela.

LINGUAPAX – INTERNATIONAL



Munduko hizkuntza aniztasuna balioztatzeke eta babesteko gobernu kanpoko erakundea da. UNESCOk 1987an sortu zuen, baina orain erakunde independentea da. LINGUAPAXen arabera hizkuntzek gizateriaren kultur aniztasunaren aberastasuna adierazten dute eta, beraz, horien babesa bakearen eta nazioar-

teko elkar ulertzearen aldeko oinarritzko ekarpena da. Horretarako, LINGUAPAXek soziolinguistikaren eremuko ikerketa koordinatua gizarteratzen du.

Halaber, hizkuntza aniztasuna babesteko prozesu ideologiko, legegile edo politikoetan aholkuak ematen ditu, bai eta hizkuntza komunitate zehatzen berreskurapenerako programetan ere.

LINGUAPAXek aholkularitza lanak egin izan dizkio hizkuntza politikaren eta plangintzaren esparruan hainbat gobernuri, besteak beste, Txina, Brasil, Paraguay edo Bolivia. Halaber, hizkuntzen berreskurapenarekin lotutako proiektuetan lan egin izan du Nigerian, Hego Afrikan, Senegalen, Tanzanian, etab.

ECMI – GUTXIENGOEN GAIETARAKO EUROPAKO ZENTROA



ECMIk praktika eta politikari buruzko ikerketak zuzentzen ditu, informazioa eta dokumentazioa ahalbideratzen ditu eta aholku zerbitzuak eskaintzen ditu gehiengo eta gutxiengoen inguruko gaietan. Europako gobernuak eta gobernuen arteko erakundeak aholkatzen ditu, baita eta gutxiengoen taldeak ere. Zentroa komunitate akademikoarekin, hedabideekin eta publikoarekin, oro har, lankidetzan ari da informazio puntuala eta azterketak eginez. 1996an sortu zen. Instituzioa independentea da eta diziplina anitzekoa. Zentroak harreman aktiboa mantentzen du gatazken konponbidean eta etnien arteko harremanetan inplikaturik dauden beste instituzio akademikoekin eta Gobernu Kanpoko Erakundeekin. Arlo horietan lankidetzak proiektuak egiten ditu.

PEN INTERNATIONAL – ITZULPEN ETA HIZKUNTZA ESKUBIDEEN BATZORDEA



Mundu zabaleko idazleen elkarte honek leku guztietako idazleen arteko adiskidantza eta lankidetzara sustatzea du helburu, kideek edozein ikuspuntu politiko edo bestelakoa badute ere. Elkartearen jomuga da adierazpen askatasunaren alde borrokatzea.

Hizkuntza gutxituetan egindako literatura beste hizkuntzetara itzultzeko baliabideak eskaintzeaz gain, hizkuntza txikien arteko itzulpenak ere sustatzen ditu. Estaturik gabeko hizkuntzen defentsan ere aritzen da eta Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsala sustatu egin zuen, bai eta Hizkuntza Eskubideen Gironako Manifestua ere.

UNPO - ORDEZKATURIK GABEKO HERRI ETA NAZIOEN ERAKUNDEA



Nazioarteko erakundea da. Herri indigenetako, gutxiengoetako eta lurralde aitortzarik ez duten edota lurraldea okupatuta duten taldeetako kideek osatzen dute. Horiek guztiek bat egin dute haien giza zein kultura eskubideak edota ingurumena babesteko, eta eragiten dien gatazkei irtenbide baketsuak aurkitzeko. UNPOko kideen helburuak desberdinak izan arren, baldintza batek batzen ditu: Nazioarte mailan ez daude egoki ordezkaturik.

Horrexegatik, UNPOk nazioarteko foro bat sustatzea du helburu, bere kideak partehartzaile eta ekarpen egile eragingarriak izan ahal izateko nazioarteko komunitateari begira. Izan ere, mundu gero eta interdependenteagoan bizi

Batzorde Zientifikoaren aurkezpena 2015eko abenduan, Donostian



gara eta, beraz, gero eta garrantzitsuagoa da eskubideak ukatuta dituzten horiek zeinek bere egoeraren berri aurkezteko aukera izatea.

Sei erakunde horiek 2014ko martxoaren 31n bildu ziren lehenengoz, eta uztailearen 13-14an bigarrenez. Bi bilera horietan hainbat erabaki hartu zuten: Protokoloak oinarritzat hartuko dituen erreferentziak, Batzorde Zientifikoaren osaera, Protokoloak izango duen hezurdura, Protokoloaren eremuei buruzko zehaztapenak...

Talde Antolatzailea izango da, beraz, prozesu hau guztia gidatu, bideratu eta zuzenduko duena.


Horrekin batera, Protokoloa prestatzeko **Batzorde Zientifikoa** ere eratu da. Erreferentziarako 17 adituk, intelektualek eta ikertzaileek osatuko dute. Diziplina desberdinetan eskarmentua duten pertsonak hautatu dira, bai eta eremu desberdinetan lanean daudenak ere. Horrelako Protokoloan ikuspegi guztiak jasotzen direla bermatzea izango da Batzorde honen zereginetako bat.

Batzorde Zientifikoaren ardura nagusia Protokoloari ekarpen kualitatiboak egitea izango da. Maila honetako dokumentu batek ikuspegi zientifikoa ere izan behar du txertatuta, eta horrexegatik erreferentziarako adituen laguntza eta aholkuak ere izango ditugu.

Azkenik, Protokoloa prestatzeko prozesu honetan aitortu nahiko genuke, Europako hizkuntza komunitateen inguruan eraturako **gizarte zibil antolatuaren lana**. Bizitza demokratikoago batera jotzeko nahiak gizarte zibilaren aldarrikapena eta bizi gogoia suspertu ditu, eta horri esker lortu egin da herritarren sentsibilitatean eragitea.

Horrexegatik, Protokoloaren prestakuntzan **gizarte eragileek garrantzi handia hartuko dute**. Europako milioika herritarren bozgorailu diren erakundeek eta eragileek adostutako tresna bat sortu nahi dugu. Errealitate desberdinetatik abiatzen gara, zalantzarik ez, baina helburu bertsua dugu geure hizkuntzen normalizazioaren alde lan egiten dugun gizarte eragileok. Hartara, prozesu hau elkarrengandik ikasteko ere baliagarria izango da

SUSTATU



ANTOLATU



AHOLKATU



PROPOSATU



4.

PROTOKOLOAREN HEZURDURA

Arestian esan bezala, Protokoloa hainbat lantaldek aurreko urteetan garatutako adosteprosesuaren emaitza izango da eta ikuspegi zientifikoa, akademikoa eta gizartearen ikuspegia bilduko ditu. Hizkuntza gutxituen egoera irauli eta hizkuntza komunitateen arteko berdintasunean oinarritutako Europa eraikitzeko tresna. Hortaz, proiektutik sortutako ondarea, protokoloa, nazioarteko foro eta instantzietara eramango da izaera anitzeko erakundeek hizkuntza aniztasunarekiko duten konpromisoaren arautzaile gisa erabil dezaten

2015eko martxoaren 31n Talde Antolatzaileak egindako bileran Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloaren hezurdura onartu zuen:

1- Zioen azalpena

- 1.1. Europako hizkuntza aniztasunaren egoera
- 1.2. Berezko hizkuntzen egoera Europan
- 1.3. Gizarte eragileen lana hizkuntzen berreskurapen-prozesuan
- 1.4. Protokoloaren beharra agerian uztea.

2- Helburuak

- 2.1. Zein helburu du Protokoloak?
- 2.2. Zer da Protokoloa? Zer jasoko du Protokoloak?
- 2.3. Protokoloak bere egingo dituen balore nagusiak
- 2.4. Zein ekarpen egingo du Protokoloak?
- 2.5. Nola erabili ahal izango da Protokoloa?

3- Erreferentziak

- 3.1. Erreferentzien dokumentuan jasotzen diren itunekiko lotura
- 3.2. Lanerako erreferentzia nagusi izango

diren dokumentuen aurkezpena eta horiek aukeratu izanaren justifikazioa:

- Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsala - HEDU (1996)
- UNESCOren 2003ko txostena

4- Gidalerroen zehaztapena

Gidalerroen oinarriak HEDU eta UNESCOren txostena izango dira. Lehenak eskubideen ikuspegitik zer bermatu behar den zehaztuko du. Bigarrenak, aldiz, helburu zehatz batzuk ezarriko ditu hizkuntzen biziberritzea bermatzeko (ikus 32. or.). Gidalerroak nola beteko diren liburuxka honen 6. atalean jaso da.

5- Aurrera begirako estrategia

- 5.1. Zein ibilbide izango du Protokoloak?
- 5.2. Nazioarteko erabakiguneetara helarazteko ibilbidearen definizioa.
- 5.3. Zein egitura egongo da Protokoloak jarraitu beharreko ibilbidea bermatzeko?

Talde Antolatzailearen lehen bilera horretan beste gai batzuk ere onartu ziren:

- Beharrezkoa denean, "gizarte zibila" hitza "gizartea" hitzaren ordeztu erabiltzea.
- "Hizkuntza komunitatea" eta "hizkuntza taldea" Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsalak jasota duen arabera erabiltzea.
- Hizkuntza aniztasunaren balizko onura ekonomikoei buruzko aipua txertatzea.

Talde Antolatzaileak dokumentuaren garapenerako neurgarriak eta zehatzak diren kontzeptuak erabiltzea erabaki zuen, ez ordea, "sustatu" bezalako hitz mugagabeak. Horretarako, interesgarria litzateke hitzen eskala mailakatu sortzea.

Azkenik, Talde Antolatzaileak erabaki zuen monitorizaziorako mekanismoren bat sortu beharko dela, protokoloa betetzen dela ebaluatu ahal izateko.

5. ERREFERENTZIAK

2015eko martxoan Talde Antolatzaileak Protokoloa prestatzeko erreferentziak zein ziren zehaztu zituen. Behin eta berriz gogoratzen ari garen moduan, **Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsala (1996)** izango da Protokoloari norabidea jarriko dion ituna. Harelere, azpimarratu nahiko genuke **ebaluazio-adierazleak zehazterako** orduan UNESCOk onartutako **Hizkuntzen Bizitasuna eta Desagertzeko Arriskua txostena (2003)** dokumentua ere izango dela oinarrietako bat.

Bi dokumentu horietaz gain, honako Itun edo dokumentu hauek ere izango ditu erreferente Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloak:

NAZIO BATUEN ERAKUNDEA

- Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala (1948)
- Eskubide Zibil eta Politikoaren Nazioarteko Ituna (1966)
- Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazioarteko Ituna (1966)
- Teherango Aldarrikapena (1968)
- Haurraren Eskubideen Aldarrikapena (1989)
- Gutxiengo Nazional, Etniko, Erlijioso eta Linguistikoaren Eskubideei Buruzko Aldarrikapena (1992)
- Vienako Aldarrikapena eta Ekintza Programa (1993)
- Herri Indigenen Eskubideei Buruzko Aldarrikapena (2007)

EUROPAKO KONTSEILUA

- Giza Eskubideen eta Oinarritzko Eskubideen Babeserako Hitzarmena (1950)
- Gutxiengo eta Erregio Hizkuntzen Europako Ituna (1992)
- Gutxiengo Nazionalen Babeserako Hitzarmen markoa (1994)

UNESCO

- Kultur Aniztasunari Buruzko Aldarrikapen Unibertsala (2001)
- Adierazpen Kulturalen Aniztasunaren Babes eta Sustapenerako Hitzarmena (2005)

SEGURTASUN ETA LANKIDETZARAKO EUROPAKO ERAKUNDEA

- Gutxiengo Nazionalen Hezkuntza Eskubideei Buruzko Hagako Gomendioak (1996)
- Gutxiengo Nazionalen Hizkuntza Eskubideei Buruzko Osloko Gomendioak (1998)
- Gutxiengo Nazionalen Bizitza Publikoan Parte Hartze Eraginkorrerako Eskubideei Buruzko Lundeko Gomendioak (1999)

EUROPAKO BATASUNA

- Europako Batasuneko Oinarritzko Eskubideen Gutuna
- Lisboako Ituna
- Europako Batzordearen Txostena erregio edo gutxiengoaren hizkuntzetarako ekarpenekin aniztasunaren eta kulturaren hedapenerako testuinguruan
- Europako Parlamentuaren 2013ko irailaren 11ko Ebazpena, arriskuan dauden Europako hizkuntzen eta Europako Batasuneko hizkuntza aniztasunari buruzkoa

PEN INTERNATIONAL

- Hizkuntza Eskubideen Gironako Manifestua

NPLD - HIZKUNTZA ANIZTASUNA SUSTATZEKO SAREA

- Hizkuntza Aniztasunerako Bide Orria

6. NOLA ERABILI GIDALIBURU HAU?

Protokoloaren mamia, zalantzarik gabe, bertan jasoko den neurri-sortan datza. Gure azken helburua Europa osorako baliagarriak

diren neurriak identifikatzea izango da. Arestian esan bezala, 1996an onartutako Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsalaren gauzaren praktikoa da ariketa honen azken helburua.

Gauzak horrela, gidaliburua prestatzeko unean, HEDUK berariaz jasotzen dituen eremuak bere horretan mantentzeko erabakia hartu dugu. Hartara, zazpi lan-eremu identifikatu ditugu, hain zuzen ere, OINARRIZKO PRINTZPIOAK, ADMINISTRAZIO PUBLIKOA, HEZKUNTZA, ONOMASTIKA, HEDABIDEAK ETA TEKNOLOGIA BERRIAK, KULTURA eta EREMU SOZIOEKONOMIKOA.

Bestalde, eremuak haien artean desberdinak badira ere, modu bertsuan lantzeko proposamena egiten dugu, eta beraz, ondoren agertzen diren fitxetan ikusiko duzuen bezala eskema bera proposatzen dugu. Horrek ez du esan, inondik inora ez, eremu bakoitzak izango duen garrantzia edota sakontasuna berdina izango denik.

Fitxen egitura honako hau da:

(Fitxak betetzeko eredua: 16 eta 17. orr.)

EREMUAREN IDENTIFIKAZIOA ETA HORRI LOTUTAKO ARTIKULUAK

Fitxa bakoitzaren goialdean zein eremu jorratuko den azaltzen da. Horrekin batera, eremu horri Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsalaren zein artikulua lotzen zaion adierazten da. Dena den, fitxa bakoitzaren alboan artikulua horiek bere horretan jasotzen dira, lanketa errazagoa izan dadin.

A. BERFORMULAZIOA: GAKO-HITZAK ETA AINTZAT HARTU BEHARREKOAK

Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsalean jasotzen diren eskubideak ditugu oinarri, baina gure lanerako lehen ariketa,

eremu bakoitzean Deklarazioak jasotzen dituen eskubideetan **gako-hitzak** identifikatzea izango da.

Horretaz gain, eta lehen esan bezala, hogeitau urte joan dira Deklarazioa onartu zenetik, eta akaso orduan jaso ez zen elementuren bat ekarri beharko da. Halere, gauza bat argi utzi behar dugu, Protokoloaren helburua ez da eskubide subjektibo berriak sortzea; bertan jasotako batzuk egokitzea baizik. Esaterako, administrazioarekin lotutako bigarren eremuan, gaur egun on-line administrazioa ere kontuan hartu beharko da, eta ondorioz, horri begirako neurri zehatzak ere jaso beharko dira.

Halaber, Batzorde Zientifikoan eremu bakoitzean **aintzat hartu beharreko elementuak** ere identifikatu zituen neurri are zehatza- goak proposatu ahal izateko.

Liburuxka honetan eremu bakoitzarekin lotutako gako-hitzak eta aintzat hartu beharrekoak jasotzen dira; halere, elementuren bat egoki jasotzen ez dela, edota oinarriko gako horietan zerbait falta bada, elementu horiek identifikatzeko eta txertatzeko eskatzen dizuegu, beti ere, oinarriko izango dugun atal hori ahalik eta osatuena izateko.

B. NEURRIAK

Eremuetan atalak identifikatzea ere oso garrantzitsua izango da, hain zuzen ere, neurrien zehaztapen-maila eremu bakoitzean identifikatuzakegun atalei lotzen zaiolako. Esaterako, hezkuntzaren eremua jorratzen denean, kontuan hartu beharko dugu derrigorrezko hezkuntza, lanbide heziketa, helduen hezkuntza, goi mailako hezkuntza, etab. Administrazioaren atalari lotzen bagatzaizkio, justiziak, esaterako, neurri-sorta berezitua izan beharko du, besteak beste, hizkuntza eskubideak ez ezik, bestelako oinarriko eskubideak ere kontuan hartu behar direlako, esaterako, babes judizial

eraginkorrerako edota defentsa-eskubideak. Hortaz, **lehen ariketa, eremu bakoitzean zein atal bereizi beharko genukeen identifikatzea** izango da.

Behin atalak identifikatuta, benetako lanke-tari ekiteko prest egongo gara. Horrela, atal bakoitzean Deklarazio Unibertsalak aitortzen dituen **eskubideak bermatzeko zein urrats eman beharko litzatekeen** jasoko dugu.

Eremu horretan, **zenbat eta zehatzago** jo, are eta eragingarriagoa izango da Protokoloa. Kontuan izan behar dugu tresna erabilgarria sortu nahi dugula, eta beraz, **neurriak ahalik eta gehien definitzea** izango da gure eginkizuna. Jakin dakigu, Europako hizkuntza gutxiagotuen egoera oso desberdina dela, baina horrek ez gaitu kezkatu behar. Protokolo batek duen ezaugarrietako bat modu progresiboan betetzen den ituna izatea da.

Azkenik, eta hurrengo atala egoki landu ahal izateko, ez da komenigarria ebaluatzeko zailtasunak sortzen dituzten aditzak baliatzea, hain zuzen ere, sustatu, bultzatu... eta hala-koak. Horrelako aditzak Protokoloaren espiritua eta bokazioa definitzeko utziko ditugu.

C. ADIERAZLEAK

Protokoloaren helburu nagusia tresna eragingarria eta lagungarria izango dela kontuan hartuta, nahitaezkoa iruditu zaigu adierazleen

eremua ere berariaz jasotzea. **Eremu honek bi helburu** nagusi bete nahi ditu. Batetik, aurreko atalean proposatzen diren neurri guztiek helburu hori betetzea. Izan ere, arriskua egon daiteke neurrien atalean elementu zehatzak jarri beharrean, asmoen deklarazioa jasotzea. Horrexegatik, proposatzen den **neurri bakoitzak zeinek bere ebaluazio-adierazlea** izango du, eta horrela bermatu egingo dugu neurriak betetzen diren ala ez ebaluatzeko elementu objektiboak izango direla. Bestalde, ebaluazio-adierazleak hiru modutakoak izan daitezkeela gogoratu nahi dugu: dikotomikoak (bai/ez erantzutekoak), kuantitatiboak eta kualitatiboak.

Hortaz, ariketa honetan zera proposatzen da, **neurri bakoitzari ebaluazio-adierazle bat txertatzea**.

Laburbilduz, Protokoloa jorratzeko honako urratsak proposatzen ditugu:

1. Eremu bakoitzari lotzen zaizkion gako-hitzak eta aintzat hartu beharrekoak definitzea
2. Deklarazioak jasotzen dituen eskubi-deak bermatzeko neurriak zehaztea
3. Proposatzen den neurri bakoitzari ebaluazio-adierazle bat txertatzea

II. FITXAK

FITXAK BETETZEKO JARRAIBIDEAK

1. EREMUA

PRINTZIOPI OROKORRAK, DISKRIMINAZIOA, ESKUBIDEAK

HEDU: 1, 2, 5, 7 eta 10. art.

A. BERFORMULAZIOA: GAKO-HITZAK ETA AINTZAT HARTU BEHARREKOAK

GAKO-HITZAK
Eskubideek subjektuak: komunitatea, taldea, gizabanakoa / Hizkuntz berdintasuna / Neurri objektibo eta proportzionalak / Hizkuntz politika / Ez-diskriminazioa / Politika publiko positiboak

AINZAT HARTU BEHARREKOAK

A. HIZKUNTZA ESKUBIDEAK GIZA ESKUBIDE OROKORRAGOekin LOTU BEHARRA A.1. Komunitatearen eskubide funtzionalak eskubide establi-koen gainetik A.2. Eskubideak diskriminazioa zuzentzeko neurritzat hartzea	D. EKINTZA POSITIBOAK D.1. Ekintza positibo espezifikoak D.2. Hizkuntz berdintasuna gauzatzeko, neurri zuzentzaile osagarri eta espezifikoak hartu beharra dagoela onartzea D.3. Dagozkion betebeharrak ezartzea hizkuntza eskubideak bermatzeko
B. BERDINTASUNA B.1. Berdintasun printzipioaren teorizazioa: Berdintasuna esku-bideen sustapen gisa defini-tzea	E. TALDEAREN AUTOIDENTIFIKAZIOA F. AUZITEGI ERAGINKORRAK FINKATzea, ONARTUTAKO ESKUBIDEEN URRAKETEI AURRE EGITEKO G. ARNASGUNEEN MANTENTZE ETA HEDATzea H. BESTELAKOAK
C. EZ DISKRIMINATZEKO PRINTZIOPIA	

B. NEURRIAK (AINZAT HARTU BEHARREKO ATALEN BATI LOTZEN BAZAIO, IDATZI MESEDEZ ZEINI DAGOKION, BESTELA EZ JARRI EZER):

1	C	Araudian hizkuntza bereizkeria eragiten duen edozein iruzkin saihestu.
2		
3		

C. ADIERAZLEAK (GOGORATU NEURRI GUZTIEK ADIERAZLE BANA IZAN BEHAR DUTELA, IDATZI, MESEDEZ, ZEIN NEURRIRI DAGOKION ADIERAZLEA):

1	1	Araudi guztia aztertuta, ba al dago hizkuntza bereizkeria eragiten duen aipurik?
2		
3		

Eremuaren deskripzioa

AINZAT HARTU BEHARREKOAK:
 Uste al duzu aintzat hartu beharreko ezer falta denik? Txertatu, mesedez.

NEURRIAK:
 Deklarazioak aitortzen dituen eskubideak bermatzeko neurriak zehaztu. Lotzen al zaio AINTZAT HARTU BEHARREKO atalen bati? Horrela bada, atala zehaztu.

ADIERAZLEAK: Neurri bakoitzari adierazle bat zehaztu, eta zein neurri dagokion idatzi.

OHARRA:

Lana errazteko ekarpen guztiak internet bidez egin daitezke www.protokoloa.eus webgunean

HEDUko
artikuluak

HIZKUNTZA ESKUBIDEEN DEKLARAZIO UNIBERTSALA

1. artikulua

1.- Deklarazio honetan hizkuntza komunitatea aipatzean esan nahi da, edozein gizarte, historian zehar lur-eremu zehatz betean finkatua eremua errekonozitua izan ala ez, bere burua herrizat daukana, eta hizkuntza komun bat garatu duena, kideen arteko komunikazio naturalerako eta kultur kohesioarako bide bezala. Lurralde bateko berreko hizkuntza edo hizkuntza propioa deizioekin, lurralde horretan historian zehar ezarritako komunitatearen mintzairari egiten zaio erreferentzia.

2.- Deklarazio honek abiapuntutzat du hizkuntza-eskubideak indibidualak eta kolektiboak direla. Horrela, hizkuntza-eskubideen betetasunaren erreferentetzat hizkuntza komunitate historiko bat bere lurralde-eremuan hartzen du, beti ere, eremu hori ulerturik komunitate hori bizi den eremu geografikoa ez ezik, bai eta hizkuntzaren garapen osorako ezinbestekoa den espazio sozial eta funtzional gisa ere. Erreferente horretatik abiatuta ezar daitezke mailakatze edo continuum modura artikulua honetako 5. puntuan aipatzen diren hizkuntza-taldeak eta zein bere komunitatearen lurraldetik at dauden pertsonen eskubideak.

2. artikulua

1.- Deklarazio honek berresten du ezen, hizkuntza komunitate eta hizkuntza-talde desberdinak lurralde berean kokaturik daudenean, Deklarazio honetan zehaztutako eskubideen egikaritzea, denon arteko errespetuaren eta berme demokratiko handien arabera arautuko dela.

2.- Behar bezalako oreka soziolinguistikoa xedatzerakoan, hain zuzen ere, hizkuntza komunitateen, hizkuntza-taldeak eta kolektibo horiek osatzen dituzten pertsonen eskubideen artikulazio egokia, haien historikotasun erlatiboak eta demokratikoki adierazitako borondateak gain, helburu berdintzailei begirako tratu orekatzailea ekarriko dituzten faktoreak ere kontuan hartu behar dira; esate baterako, komunitate eta talde desberdinak elkarrekin bizitzera bultzatu dituzten migrazioen indarrezko izaera, edota talde horien

maila politiko, sozioekonomiko edo kultural eskasa.

5. artikulua

Deklarazio honen funtsean dagoen printzipioa da hizkuntza komunitate guztiak eskubide berdinen jabe direla, kontuan izan gabe haien izaera juridikoa edo politikoa zein den, alegia, hizkuntza ofizialarena, erregionalarena edo gubxiengoaren hizkuntzarena. Erregio hizkuntza edo gubxiengoaren hizkuntza bezalako izendapenak ez dira testu honetan erabiltzen; izan ere, kasu batzuetan erregio hizkuntza edo gubxiengoaren hizkuntza bezala aitortua izateak eskubide horiek egikaritzea erraz badezakeen ere, horiek eta antzeko izendapenak usuegi erabiltzen dira hizkuntza komunitate baten eskubideak murrizteko asmoz.

7. artikulua

1.- Hizkuntza guztiak dira nortasun kolektibo baten adierazpen, bai eta errealitatea modu desberdinean hautemateko eta deskribatzeko tresna ere; hortaz, funtzio guztietan garatu ahal izateko baldintzak izan behar dituzte.

2.- Hizkuntza bakoitza kolektiboki eraikitako errealitatea da, eta komunitate baten barruan norberaren erabilerarako erabilgarri bilakatzen da, kohesioaren, identifikazioaren, komunikazioaren eta adierazkortasun sortzailearen tresna gisa.

10. artikulua

1. Hizkuntza komunitate guztiek eskubide berdinak dituzte.

2.- Deklarazio honek arbuigarriztat jotzen ditu hizkuntza komunitateen aurkako diskriminazio guztiak, besteak beste, subiranotasun politikoa, egoera sozial edo ekonomikoan bezalako irizpideetan oinarriturikoak, edota hizkuntza horiek lortu duten kodetze, eguneratze edo modernizatze mailaren arabera.

3.- Berdintasun hori benetakoa izan dadin ezinbesteko neurriak hartu beharko dira, beti ere berdintasun-printzipioa aplikatuz.

1. EREMUA

PRINTZIPIO OROKORRAK, DISKRIMINAZIOA, ESKUBIDEAK

HEDU: 1, 2, 5, 7 eta 10. art.

A. BERFORMULAZIOA: GAKO-HITZAK ETA AINTZAT HARTU BEHARREKOAK

GAKO-HITZAK

Eskubideek subjektuak:komunitatea, taldea, gizabanakoa / Hizkuntz berdintasuna / Neurri objektibo eta proportzionalak / Hizkuntz politika / Ez-diskriminazioa / Politika publiko positiboak

AINTZAT HARTU BEHARREKOAK

A. HIZKUNTZA ESKUBIDEAK GIZA ESKUBIDE OROKORRAGOekin LOTU BEHARRA

- A.1. Komunitatearen eskubide funtzionalak eskubide estatikoen gainetik
- A.2. Eskubideak diskriminazioa zuzentzeko neurritzat hartzea

B. BERDINTASUNA

- B.1. Berdintasun printzipioaren teori-zazioa: Berdintasuna eskubideen sustapen gisa definitzea

C. EZ DISKRIMINATZEKO PRINTZIPIOA

D. EKINTZA POSITIBOAK

- D.1. Ekintza positibo espezifikoak
- D.2. Hizkuntz berdintasuna gauzatzeko, neurri zuzentzaile osagarri eta espezifikoak hartu beharra dagoela onartzea
- D.3. Dagozkion betebeharrak ezartzea hizkuntza eskubideak bermatzeko

E. TALDEAREN AUTOIDENTIFIKAZIOA

F. AUZITEGI ERAGINKORRAK FINKATZEA, ONARTUTAKO ESKUBIDEEN URRAKETEI AURRE EGITEKO

G. ARNASGUNEEN MANTENTZE ETA HEDATZEA

H. BESTELAKOAK

B. NEURRIAK (AINTZAT HARTU BEHARREKO ATALEN BATI LOTZEN BAZAIO, IDATZI MESEDEZ ZEINI DAGOKION, BESTELA EZ JARRI EZER):

1		
2		
3		

C. ADIERAZLEAK (GOGORATU NEURRI GUZTIEK ADIERAZLE BANA IZAN BEHAR DUTELA, IDATZI, MESEDEZ, ZEIN NEURRIRI DAGOKION ADIERAZLEA):

1		
2		
3		

HIZKUNTZA ESKUBIDEEN DEKLARAZIO UNIBERTSALA

1. artikulua

1.- Deklarazio honetan hizkuntza komunitatea aipatzean esan nahi da, edozein gizarte, historian zehar lur-eremu zehatz betean finkatua eremua errekonozitua izan ala ez, bere burua herrizat daukana, eta hizkuntza komun bat garatu duena, kideen arteko komunikazio naturalerako eta kultur kohesioarako bide bezala. Lurralde bateko berezko hizkuntza edo hizkuntza propioa deizioekin, lurralde horretan historian zehar ezarritako komunitatearen mintzairari egiten zaio erreferentzia.

2.- Deklarazio honek abiapuntutzat du hizkuntza-eskubideak indibidualak eta kolektiboak direla. Horrela, hizkuntza-eskubideen betetasunaren erreferentetzat hizkuntza komunitate historiko bat bere lurralde-eremuan hartzen du, beti ere, eremu hori ulerturik komunitate hori bizi den eremu geografikoa ez ezik, bai eta hizkuntzaren garapen osorako ezinbestekoa den espazio sozial eta funtzional gisa ere. Erreferente horretatik abiatuta ezar daitezke mailakatze edo continuum modura artikulua honetako 5. puntuan aipatzen diren hizkuntza-taldeak eta zein bere komunitatearen lurraldetik at dauden pertsonen eskubideak.

2. artikulua

1.- Deklarazio honek berresten du ezen, hizkuntza komunitate eta hizkuntza-talde desberdinak lurralde berean kokaturik daudenean, Deklarazio honetan zehaztutako eskubideen egikaritzea, denon arteko errespetuaren eta berme demokratiko handien arabera arautuko dela.

2.- Behar bezalako oreka soziolinguistikoa xedatzerakoan, hain zuzen ere, hizkuntza komunitateen, hizkuntza-taldeak eta kolektibo horiek osatzen dituzten pertsonen eskubideen artikulazio egokia, haien historikotasun erlatiboak eta demokratikoki adierazitako borondateaz gain, helburu berdintzaileei begirako tratua orekatzailea ekarriko dituzten faktoreak ere kontuan hartu behar dira; esate baterako, komunitate eta talde desberdinak elkarrekin bizitzera bultzatu dituzten migrazioen indarrezko izaera, edota talde horien maila politiko, sozioeko-

nomiko edo kultural eskasa.

5. artikulua

Deklarazio honen funtsean dagoen printzipioa da hizkuntza komunitate guztiak eskubide berdinen jabe direla, kontuan izan gabe haien izaera juridikoa edo politikoa zein den, alegia, hizkuntza ofizialarena, erregionalarena edo gutxiengoaren hizkuntzarena. Erregio hizkuntza edo gutxiengoaren hizkuntza bezalako izendapenak ez dira testu honetan erabiltzen; izan ere, kasu batzuetan erregio hizkuntza edo gutxiengoaren hizkuntza bezala aitortua izateak eskubide horiek egikaritzea erraz badezakeen ere, horiek eta antzeko izendapenak usuegi erabiltzen dira hizkuntza komunitate baten eskubideak murrizteko asmoz.

7. artikulua

1.- Hizkuntza guztiak dira nortasun kolektibo baten adierazpen, bai eta errealitatea modu desberdinean hautemateko eta deskribatzeko tresna ere; hortaz, funtzio guztietan garatu ahal izateko baldintzak izan behar dituzte.

2.- Hizkuntza bakoitza kolektiboki eraikitako errealitatea da, eta komunitate baten barruan norberaren erabilerarako erabilgarri bilakatzen da, kohesioaren, identifikazioaren, komunikazioaren eta adierazkortasun sortzailearen tresna gisa.

10. artikulua

1. Hizkuntza komunitate guztiek eskubide berdinak dituzte.

2.- Deklarazio honek arbuia garritzat jotzen ditu hizkuntza komunitateen aurkako diskriminazio guztiak, besteak beste, subiranotasun politikoan, egoera sozial edo ekonomikoan bezalako irizpideetan oinarriturikoak, edota hizkuntza horiek lortu duten kodetze, eguneratze edo modernizatze mailaren arabera.

3.- Berdintasun hori benetakoa izan dadin ezinbesteko neurriak hartu behar dira, beti ere berdintasun printzipioa aplikatuz.

2. EREMUA

ADMINISTRAZIO PUBLIKOA ETA INSTITUZIOAK

HEDU: 15-22. artikulua

A. BERFORMULAZIOA: GAKO-HITZAK ETA AINTZAT HARTU BEHARREKOAK

GAKO-HITZAK

Erabilera unibertsala / Ofizialtasuna / Legezko errekonozimendua / Berezko hizkuntza erabiltzeko eskubidea / Hizkuntza esparru eta zeregin guztietan erabiltzeko eskubidea / Legezko balioa / Jarrera proaktiboa / Administrazio barruko hartu-emanak / Administrazioen arteko hartu-emanak / Justizia-sistema eta auzitegiak: Babes judizial eragingarria / Hizkuntza eskubideak: aktiboak eta pasiboak / Administrazio elektronikoa / Langile publikoen hizkuntz gaitasuna

AINTZAT HARTU BEHARREKOAK

A. LEGEZKO ERREKONOZIMENDUA

- A.1. Hizkuntza komunitateen eskubideak
- A.2. Gutxiengo (banakako nahiz kolektiboen) eskubideak
- A.3. Oinarrizko eskubideen hizkuntz ikuspegia

B. OINARRIZKO LOTURA: HIZKUNTZA GUTXITUA ADMINISTRAZIO GUZTIAN ETA ADMINISTRAZIO-MAILA GUZTIAN ERABILTZEKO ESKUBIDEA

C. HIZKUNTZAREN OFIZIALTASUNA

D. ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN BETEBEHARRAK

E. FUNTZIONARIO ETA LANGILE PUBLIKOAK

- E.1. Kontratazio-politika
- E.2. Hizkuntza gaitasuna
- E.3. Hizkuntza trebakuntza

F. ORDEZKAPENA ESPARRU PUBLIKOAN, ORDEZKARIAK...

G. LEHENTASUNAK ZEHAZTEA

Osasun sistema, Polizia, Sektore publikoa, Justizia-sistema

H. BESTELAKOAK

B. NEURRIAK (AINTZAT HARTU BEHARREKO ATALEN BATI LOTZEN BAZAIO, IDATZI MESEDEZ ZEINI DAGOKION, BESTELA EZ JARRI EZER):

1		
2		
3		

C. ADIERAZLEAK (GOGORATU NEURRI GUZTIEK ADIERAZLE BANA IZAN BEHAR DUTELA, IDATZI, MESEDEZ, ZEIN NEURRIRI DAGOKION ADIERAZLEA):

1		
2		
3		

HIZKUNTZA ESKUBIDEEN DEKLARAZIO UNIBERTSALA

15. artikulua

1.- Hizkuntza komunitate orok eskubidea du bere hizkuntza ofizialtzat erabilia izan dadin bere lurraldearen barruan.

2.- Hizkuntza komunitate orok eskubidea du jardun judizial eta administratiboak, dokumentu publiko eta pribatuak, eta erregistro publikoetan egindako inskripzioak lurraldeko berezko hizkuntzan egiten direlarik, baliozkoak eta eraginkorrak izan daitezen, eta inork ezin dezan argudia hizkuntza hori ez dakienik.

16. artikulua

Hizkuntza komunitate bateko edozein kidek eskubidea du bere hizkuntzan erlazionatzeko eta harrera izateko hizkuntza hori berezkozat duen lurraldean bere baitan dauden botere publikoen, eta administrazio-dibisioen zerbitzuen aldetik, zentralak, lurraldekoak, tokikoak hala lurraldez gaindikoak izan.

17. artikulua

1.- Hizkuntza komunitate orok eskubide du lurraldeko hizkuntzan eskura izateko eta eskuratzeko dokumentazio ofizial guztia, paperezko inprimaki eta ereduak, euskarri informatikoan daudenak edo bestelakoak, eta halaxe eskainiko zaizkie herritarrei hizkuntza hori berezkoa den lurraldeetan gertatzen diren harremanetan.

2.- Botere publikoek eskura izan behar dituzte lurraldeko hizkuntzetan formularioak, paperezko inprimaki eta ereduak, euskarri informatikoan daudenak edo bestelakoak, bai eta hizkuntza hori berezkoa den lurraldeei dagozkien zerbitzuetan herritarrei eskaini ere.

18. artikulua

1.- Hizkuntza komunitate orok eskubidea du berari dagozkion legeak eta gainerako arau juridikoak lurraldearen berezko hizkuntzan argitara daitezen.

2.- Botere publikoek, bere jarduketa-eremuaren barruan, lurraldearen arabera historikoa den hizkuntza bat baino gehiago dutenean, hizkuntza horietan argitaratu behar dituzte legeak eta gainerako arau juridikoak, kontuan hartu gabe hiztunek beste hizkuntzak ulertzen dituztenentz.

19. artikulua

1.- Ordezkarien Batzarrek ofizialtzat hartu behar dituzte ordezkatzen dituzten lurraldeetan historian zehar hitz egindako hizkuntza edo hizkuntzak.

2.- Kokalekua barreiatuta duten eta 1. artikuluko 4. atalean aipatutako komunitateen hizkuntzak ere hartzen ditu eskubide honek.

20. artikulua

1.- Gizaki orok eskubidea du justizia-auzitegiak kokatuta dauden lurraldean historian zehar hitz egindako hizkuntza ahoz eta idatziz erabiltzeko. Auzitegiek lurraldeko berezko hizkuntza erabili behar dute barne-jardunetan, eta estatuaren antolaketa judizialaren ondorioz prozesuak hasierako lurraldetik kanpo jarraitu behar badu, hasierako hizkuntzari eutsi beharko zaio.

2.- Edozein kasutan ere, gizaki orok eskubidea du ulertzen duen eta hitz egin dezakeen hizkuntza batean epaitua izateko, bai eta doako interprete bai izateko ere.

21. artikulua

Hizkuntza komunitate orok eskubidea du erregistro publikoetako idazpenak lurraldeko berezko hizkuntzan egin daitezen.

22. artikulua

Hizkuntza komunitate orok eskubidea du notario-dokumentuak edota fede publikoa ematen duten funtzionarioak zilegitutakoak, notarioaren edo funtzionarioaren egoitza kokatuta dagoen lurraldeko berezko hizkuntzan idatziak izateko.

3. EREMUA

HEZKUNTZA

HEDU: 23-30. artikulua

A. BERFORMULAZIOA: GAKO-HITZAK ETA AINTZAT HARTU BEHARREKOAK

GAKO-HITZAK

Kohesio soziala / Hizkuntza leheneratzeko prozesuko funtsezko kontzeptua / Ez-diskriminazioa / Irizpide demokratikoak / Berdintasuna:Ikasle guztiak gaitasun bera / Herritar guztiak hizkuntz gaitasuna / Politika publikoak funtsezkoak / Hezkuntza-mailak:derrigorrezkoa, lanbide-heziketa, unibertsitatea / Helduak / Aniztasunarekiko errespetua

AINTZAT HARTU BEHARREKOAK

A. HIZKUNTZA JASOTZEKO ESKUBI-DEAK: Hizkuntza gutxituko hiztun gaituak garatzea ahalbidetzea (1+2 hizkuntzak, gutxitua barne)

- A.1. Hezkuntza berdintasuna
- A.2. Elkarrekin vs. bereizita
- A.3. Eredu katalana

B. HEZKUNTZA-MAILAK

- B.1. Eskolaurrea
- B.2. Derrigorrezko hezkuntza
- B.3. Hezkuntza ez derrigorrezkoa
- B.4. Lanbide-heziketa
- B.5. Unibertsitatea:Hizkuntza ikastea / hizkuntzan ikastea

- B.6. Helduen hezkuntza
- B.7. Ikasketa-behar osagarri espezifikoak
- B.8. Zeinu hizkuntza (gutxitua)

C. IRAKASLEEN TREBAKUNTZA

D. IRAKAS-MATERIALA

E. METODOLOGIA

F. IMMIGRAZIOA

G. CURRICULUMA

- G.1. Kultur balioak
- G.2. Hizkuntza aniztasunaren balioa

H. FINANTZAZIOA

I. BESTELAKOAK

B. NEURRIAK (AINTZAT HARTU BEHARREKO ATALEN BATI LOTZEN BAZAIO, IDATZI MESEDEZ ZEINI DAGOKION, BESTELA EZ JARRI EZER):

1		
2		
3		

C. ADIERAZLEAK (GOGORATU NEURRI GUZTIEK ADIERAZLE BANA IZAN BEHAR DUTELA, IDATZI, MESEDEZ, ZEIN NEURRIRI DAGOKION ADIERAZLEA):

1		
2		
3		

HIZKUNTZA ESKUBIDEEN DEKLARAZIO UNIBERTSALA

23. artikulua

1.- Hezkuntzak lagundu egin behar du lurraldeko hizkuntza komunitatearen autoadierazpen linguistikoaren eta kulturalaren gaitasuna indartzen.

2.- Hezkuntzak lagundu egin behar dio lurraldeko hizkuntza komunitateak hitz egiten duen ahozko hizkuntzaren mantentzeari zein garapenari.

3.- Hezkuntza hizkuntza- eta kultura-aniztasunaren zerbitzura egongo da beti, bai eta mundu osoko hizkuntza komunitateen arteko harreman harmoniatsuen alde ere.

4.-Aurreko printzipioen karira, gizaki orok eskubidea du edozein hizkuntza ikasteko.

24. artikulua

Hizkuntza komunitate orok eskubidea du erabakitzeko zein mailatan egongo den bere hizkuntza, hala irakas-hizkuntza nola irakasgai gisa, ikasmaita guztietan: haur hezkuntza, lehen mailako hezkuntza, bigarren hezkuntza, lanbide heziketa, unibertsitatea eta helduen hezkuntza.

25. artikulua

Hizkuntza komunitate orok eskubidea du beharrezkoak dituen baliabide pertsonal eta material guztiak eskura izateko, lurralde barruko irakaskuntzaren maila guztietan bere hizkuntzak nahi duen presentzia-maila lor dezan: modu egokian hezitako irakasleak, metodo pedagogiko egokiak, eskuliburuak, diru-iturriak, aretoak eta ekipamenduak, baliabide teknologiko tradizionalak zein berritzaileak.

26. artikulua

Hizkuntza komunitate orok eskubidea du

bere kide guztiei berezko hizkuntza menderatzeko bidea emango dien hezkuntza izateko, ohiko erabilerei dagozkien gaitasun guztiak barne, bai eta ezagutu nahi den beste hizkuntza baten ezagutza osoa menderatzeko ere.

27. artikulua

Hizkuntza komunitate orok eskubidea du bere kide guztiei berezko kultur ohiturekin loturiko hizkuntza guztiak ikasteko aukera emango dien heziketa izateko, esate baterako, kultura-zein erlijio-hizkuntzak, aitzinean komunitate horren eguneroko hizkuntza gisa erabiliak izan zirenak.

28. artikulua

Hizkuntza komunitate orok eskubidea du bere kide guztiei kultur ondarearen (historia, geografia, literatura eta kultura propioaren beste adierazpenak) ezagutza sakonaz jabetzeko heziketa izateko, eta halaber, ezagutu nahiko luketen beste edozein kultura ahalik eta hobekien menderatzeko.

29. artikulua

1.- Gizaki orok eskubidea du hezkuntza bera bizi den lurraldeko berezko hizkuntzan jasotzeko.

2.- Eskubide horrek ez du alde batera uzten beste hizkuntza komunitateekin komunikatzeko tresnatzat erabil daitekeen beste edozein hizkuntzaren ahozko zein idatzizko ezagutza ikasteko eskubidea.

30. artikulua

Hizkuntza komunitate bakoitzaren hizkuntza eta kultura unibertsitate mailako ikaskuntzarako eta ikerketarako gaiak izango dira.

4. EREMUA

EREMU SOZIOEKONOMIKOA

HEDU: 47-52. artikulua

A. BERFORMULAZIOA: GAKO-HITZAK ETA AINTZAT HARTU BEHARREKOAK

GAKO-HITZAK

Publiko-privatu dikotomia / Interes orokorreko zerbitzuak / Zerbitzuaren hizkuntza / Lanbide-jarduera / Jarduera sozioekonomikoa / Subjektu kolektiboak: sindikatuak, elkarteak, enpresa eta konpainiak, kontsumitzaileak... / Hizkuntz erabilerari lotutako zigor-klausulak / Bitartekoa / Finantzazio publikoko entitate pribatua

AINTZAT HARTU BEHARREKOAK

A. KONTSUMITZAILE ETA ERABILTZAILEEN HIZKUNTZA ESKUBIDEAK BERMATZEKO BETEKIZUNAK:

Hizkuntzari buruzko legea.
Aniztasunaren kudeaketa

B. ESPARRUAK

- B.1. Hizkuntza aniztasuna esparru publikoetan (seinaleak, publizitatea...)
- B.2. Lan-esparrua: Ez diskriminazioa / Diskriminazio positiboa
- B.3. Hizkuntz inpaktua

C. MAILAK

- C.1. Enpresa handiak / Korporazioak
- C.2. Zerbitzu publikoak
- C.3. Berriki privatizatutako arloak
- C.4. Enpresa sozialak

D. LANA/LANGILEAK

Kontratazioa: Hizkuntza gaitasunak

E. KONTSUMITZAILEEN BABESA

F. JARDUNBIDEAK

- F.1. Hizkuntzaren gaineko zergak
- F.2. Soldadari edo promozioei lotutako onurak
- F.3. Onura finantzarioak
- F.4. Hizkuntza kudeaketaren arloko jardunbide egokiak

G. HIZKUNTZAREN INDUSTRIA

H. DISKURTSOA

- H.1. Kooperantzia
- H.2. Erantzukizun soziala
- H.3. Zerbitzuaren bikaintasuna
- H.4. Onura ekonomiko potentzialak

I. BESTELAKOAK

B. NEURRIAK (AINTZAT HARTU BEHARREKO ATALEN BATI LOTZEN BAZAIO, IDATZI MESEDEZ ZEINI DAGOKION, BESTELA EZ JARRI EZER):

1		
2		
3		

C. ADIERAZLEAK (GOGORATU NEURRI GUZTIEK ADIERAZLE BANA IZAN BEHAR DUTELA, IDATZI, MESEDEZ, ZEIN NEURRIRI DAGOKION ADIERAZLEA):

1		
2		
3		

HIZKUNTZA ESKUBIDEEN DEKLARAZIO UNIBERTSALA

47. artikulua

1. Hizkuntza komunitate orok eskubidea dauka bere hizkuntzaren erabilera xedatzeko bere lurraldearen barruko jarduera sozioekonomiko guztietan.
2. Hizkuntza komunitate bateko edozein kidek eskubidea dauka bere hizkuntzan eskura izateko lanbide-jarduera egikaritzeko baliabide guztiak, hala nola kontsultarako dokumentuak eta liburuak, jarraibideak, formularioak eta informatikozko ekipamenduak tresnak eta produktuak
3. Alor sozioekonomikoan beste hizkuntzen erabilera justifika dezaken arrazoi bakarra, egiten ari den lanbide-jardueraren izaera izango da. Inolaz ere ez daiteke onar berriki etorria den hizkuntzak lurraldekoa berezkoa den hizkuntza ezkutatzea edo erabilera menperatzea.

48. artikulua

1. Norbere hizkuntza komunitatearen lurraldearen gizaki orok eskubidea dauka bere hizkuntza balio juridiko osoz erabiltzeko era guztietako merkataritza-jardunetan, hala nola ondasun, eta zerbitzuen salerosketetan, banku-eragiketetan, aseguruetan. lan-kontratuetan, eta gainerakoe-tan.
2. Ekintza pribatu horietako ezein klausulak ezin du baztertu edo mugatu lurraldeko hizkuntza propioaren erabilera.
3. Gizaki orok eskubidea dauka bere hizkuntza komunitatearen lurraldean bere hizkuntzan eskura izateko aipatutako eragileak burutzeko behar diren agiriak, hala nola inprimakiak, txek-keak, kontratuek fakturak, ordainagiriak, emate-agiriak, eskaerak eta gainerakoak.

49. artikulua

Gizaki orok eskubidea dauka bere hizkuntza komunitatearen lurraldean bere hizkuntza erabiltzeko edozein mototako erakunde sozioekonomikoetan,

hala nola laboralak, sindikalak, patronalak, lanbidekoak eta gremioak.

50. artikulua

1. Hizkuntza komunitate orok eskubidea dauka bere hizkuntzak presentzia nagusia izan dezan publizitatean, errotulazioan, kanpo-seinalezta-penetan eta lurraldearen irudi orokorrean.
2. Hizkuntza komunitate propioaren lurraldeen gizaki orok eskubidea dauka bere hizkuntzan informazio osoa izateko idatzia zein ahozkoa, lurraldean finkatutako merkataritza-establezimenduek eskaintzen dituzten produktu eta zerbitzuez, hala nola erabiltze-jarraibideak, etiketak, osagai-zerrendak, publizitatea, bermeak eta gainerakoak.
3. Pertsonen segurtasunari dagozkion argibide publiko guztiak hizkuntza komunitatearen hizkuntzen, gutxienez, adieraziko dira, beste edozein hizkuntzarako adierazpenak baino kondizio ez okerragotan.

51. artikulua

1. Gizaki orok eskubidea dauka lurraldeko hizkuntza propioa erabiltzeko enprekin, merkataritza-establezimenduekin eta erakunde pribatuekin dauzkan harremanetan, eta hizkuntza berean atenditua eta erantzuna izateko.
2. Gizaki orok eskubidea dauka, bezero, kontsumitzaile edo erabiltzaile gisa, jendeari zabaldu-tako establezimenduetan lurraldeko hizkuntza propioan informatua izateko, hola ahoz nola idatziz

52. artikulua

Gizaki orok eskubidea dauka jarduera laboralak eta lanbideak lurraldeko hizkuntza propioan egiteko, salbuetsiz lanpostuari dagozkion funtzioek beste hizkuntzen erabilera eskatzen duten kasuak, halakoak baitira hizkuntz irakasleak, itzultzaileak, turismo-gidariak.

ONOMASTIKA

HEDU: 31-34. artikulua

A. BERFORMULAZIOA: GAKO-HITZAK ETA AINTZAT HARTU BEHARREKOAK

GAKO-HITZAK

Erakunde akademikoen errekonozimendua / Leku-izenak / Pertsona-izenak / Corpora / Hizkuntza paisaia / Oinarrizko eskubidea

AINTZAT HARTU BEHARREKOAK

A. IDENTIFIKATU BEHARREKO GIZA ESKUBIDEA ETA OINARRIZKO ESKUBIDEA. HIZKUNTZA PAISAIA GUTXIENEN BALDINTZA GISA: LEHEN MAILAKO EKINTZA HIZKUNTZA BISTARATZEKO

B. HIZKUNTZA GUTXITUKO PERTSONA- ETA LEKU-IZENEN ONARPEN OFIZIALA. NORBERAREN IZENA ZUZENTZEKO ESKUBIDEA (DOHAINIK)

C. ESTANDARRA ADOSTEA

D. IZEN GEOGRAFIKOAK:
Kostaldea, mendiak...

E. GPS-A, MAPAK (DIGITALAK, INPRIMATUAK, OFIZIALAK)

F. PERTSONA-IZENAK JATORRIZKO ALFABETU/IDAZKERAN (itzulpenean oinarritu gabe)

G. IZENEN BIKOIZKETA SAIHESTU
G.1. Izen bikoiztuen erabilera:
noiz, non eta nola

H. ESPARRU PUBLIKOEN KOMERTZIALIZAZIOA

I. PARTE HARTU BEHAR DUTEN INSTITUZIOAK

J. BESTELAKOAK:

K. BESTELAKOAK:

B. NEURRIAK (AINTZAT HARTU BEHARREKO ATALEN BATI LOTZEN BAZAIO, IDATZI MESEDEZ ZEINI DAGOKION, BESTELA EZ JARRI EZER):

1		
2		
3		

C. ADIERAZLEAK (GOGORATU NEURRI GUZTIEK ADIERAZLE BANA IZAN BEHAR DUTELA, IDATZI, MESEDEZ, ZEIN NEURRIRI DAGOKION ADIERAZLEA):

1		
2		
3		

HIZKUNTZA ESKUBIDEEN DEKLARAZIO UNIBERTSALA

31. artikulua

Hizkuntza komunitate orok eskubidea du esparru eta eremu guztietan bere sistema onomastikoari eusteko eta erabiltzeko.

32. artikulua

1.- Hizkuntza komunitate orok eskubidea du bere lurraldeko toki-izenak bere hizkuntzan erabiltzeko, ahoz eta idatziz, esparru pribatuan, publikoan nahiz ofizialetan.

2.- Hizkuntza komunitate orok eskubidea du toki-izen autoktonoak finkatzeko, gordetzeko eta berri-kusteko. Toki-izen horiek ezingo dira arbitrarioki ezabatu, ez eta aldatu edota egokitu ere; era berean, ezin izango dira gorabehera politikoen edo beste-lako aldaketen arabera ordeztu.

33. artikulua

Hizkuntza komunitate orok eskubidea du bere burua berezko hizkuntzan izendatzeko. Hortaz, beste hizkuntzetara egindako itzulpenetan, izendapen nahasgarriak eta erdeinuzkoak saihestu beharko dira.

34. artikulua

Gizaki orok eskubidea du bere antroponimia berea duen hizkuntzan eta eremu guztietan erabiltzeko; eta beste sistema grafiko batera eraman behar denean, ahalik eta transkripzio fonetiko fidelenean egin dadin.

6. EREMUA

HEDABIDEAK ETA TEKNOLOGIA BERRIAK

HEDU: 35-40. artikulua

A. BERFORMULAZIOA: GAKO-HITZAK ETA AINTZAT HARTU BEHARREKOAK

GAKO-HITZAK

Hedabide publikoak / Adierazpen-askatasuna / Finantzazio publikoko hedabideak / Ekipamendu informatikoa

AINTZAT HARTU BEHARREKOAK

A. INFORMAZIOA HIZKUNTZA GUTXITUAN JASOTZEKO ESKUBIDEA

B. HEDABIDE-KORPORAZIOEK BEREN PRODUKTU GUZTIAK HIZKUNTZA GUTXITUETAN EMATEN DITUZTELA BERMATZEKO LEGEAK ONARTZEA

C. MUGAZ GAINDI / ESTATUEN BARRUAN:
Mugaz gaindi eta estatu barruan (partekatutako) hizkuntza gutxituan irratia, TB... jasotzen dela bermatzeko jarraipena egitea

D. HEDABIDEEN IRISMEN TEKNOLOGIKOA HIZKUNTZAREN LURRALDEAREKIN BAT ETORTZEA

E. HEDABIDE PUBLIKOAK

F. IRRATI/TELEBISTA PRIBATUAK HIZKUNTZA GUTXITUAN BERMATZEA

- F.1. Gubxienerako hizkuntzaren behar besteko proportzioa
- F.2. Lizentziak

G. TEKNOLOGIA HIZKUNTZA ANIZTASUNA AREAGOTZEKO, EZ MUGATZEKO

- G.1. Teknologia berrien potentziala
- G.2. Multimedia edukiak jasotzeko bide berriak

H. HIZKUNTZA GUTXITUKO HIZTUNAK GEHIENGOAREN HIZKUNTZA ERABILTZERA BEHARTUTA

I. EDUKIAK:ANIZTASUNA ERAKUTSI ETA PRAKTIKATZEA, GEHIEGIZKO ELEBAKARTASUNERAKO JOERAK (FIKZIOAN ERE BAI).

Gubxiengo hizkuntzen/hizkuntza gutxituen eta haien hiztunen presentzia bermatzea programetan

J. GAZTEAK, HEDABIDEAK ETA TEKNOLOGIA BERRIAK

K. BESTELAKOAK

B. NEURRIAK (AINTZAT HARTU BEHARREKO ATALEN BATI LOTZEN BAZAIO, IDATZI MESEDEZ ZEINI DAGOKION, BESTELA EZ JARRI EZER):

1		
2		
3		

C. ADIERAZLEAK (GOGORATU NEURRI GUZTIEK ADIERAZLE BANA IZAN BEHAR DUTELA, IDATZI, MESEDEZ, ZEIN NEURRIRI DAGOKION ADIERAZLEA):

1		
2		
3		

HIZKUNTZA ESKUBIDEEN DEKLARAZIO UNIBERTSALA

35. artikulua

Hizkuntza komunitate orok eskubidea du erabakitzeko zein mailatako presentzia izan behar duen bere hizkuntzak bere lurraldeko hedabidetan, hala tokiko eta tradizioaletan, nola irismen handiago eta teknologia aurreratuagokoetan, erabiltzen den hedapen- edo igorpen-sistemari begiratu gabe.

36. artikulua

Hizkuntza komunitate orok eskubidea du behar diren baliabide pertsonal eta material guztiak eskura izateko lurraldeko hedabideetan, bere hizkuntzaren eta kultur autoadierazpenaren presentzia nahi den mailakoa izan dadin: egoki hezitako langileria, diru-iturriak, aretoak eta ekipamenduak, ohiko baliabide teknologikoak eta berritzaileak.

37. artikulua

Hizkuntza komunitate orok eskubidea du hedabideen bidez bere kultur ondareari buruzko (historia, geografia, literatura eta kultura propioaren beste adierazpenok) ezagutza sakona jasotzeko; bai eta ezagutu nahi duen beste kultura baten ahalik eta ezagutza handiena jasotzeko ere.

38. artikulua

Hizkuntza komunitateen hizkuntza eta kultura guztiek tratatu orekatu ez baztertzaillea jaso behar dute mundu osoko hedabidetako edukietan.

39. artikulua

Deklarazio honetako 1. artikuluko 3. eta 4. ataletan azaldutako komunitateek, bai eta artikuluko bereko 5. atalean azaltzen diren taldeek ere, eskubidea dute egoitza finkatuta duten edo lekualdatzen diren lurraldeko hedabideetan beren hizkuntzek trataera orekatua izan dezaten. Eskubide horren egikaritzea bateratu egin beharko da lurraldeko beste talde edota komunitateen eskubideen egikaritzarekin.

40. artikulua

Hizkuntza komunitate orok eskubidea du bere hizkuntza-sistemari egokitutako informatika-ekipamenduak, eta bere hizkuntzako tresneria eta produktuak eskura izateko, teknologia horiek eskaintzen duten ahalmen guztien onura atera ahal izateko, bai autoadierazpenari, hezkuntzari, argitarapenari edo itzulpenari dagokienez, bai eta, oro har, informazioaren tratamenduari eta kultur hedapenari dagokionez ere.

7. EREMUA

KULTURA

HEDU: 41-46. artikulua

A. BERFORMULAZIOA: GAKO-HITZAK ETA AINTZAT HARTU BEHARREKOAK

GAKO-HITZAK

AINTZAT HARTU BEHARREKOAK

A. KULTURA ESKURATZEKO ESKUBIDEA, KULTUR ESKUBIDEEK BARNE HARTZEN DITUZTE HIZKUNTZA ESKUBIDEAK. KULTUR ADIERAZPIDEEN ERREKONUZIMENDUA

B. KULTURAREN ETA HIZKUNTZAREN ARTEKO LOTURAK: HIZKUNTZA KULTURAREN DNA GISA

C. HIZKUNTZAK BEREZKOAK DITUEN KULTUR ADIERAZPIDEEN ERREKONUZIMENDUA

D. ESPARRU SOZIALETARAKO SARBIDEA IZATEKO ESKUBIDEA

D.1. Ingurune soziala sortzea
(ez museo etnografiko gisa)

E. KULTURA GUTXITUAK IKUSGARRI EGITEA

F. HIZKUNTZA IKUSPEGIA KULTUR EKITALDI GUZTIETAN

G. KULTUR ESKAINTZA ERAKARGARRIA

H. ALDERDI EKONOMIKOA

- H.1. Berrikuntza
- H.2. Hizkuntzari lotutako zergak
- H.3. Onura finantzarioak
- H.4. Derrigorrezko inbertsioa

G. ESPERIENTZIAK NAZIOARTERA ZABALTzea

H. GAZTEAK ETA KULTURA: EZ UMETZAT HARTzea

I. BESTELAKOAK:

B. NEURRIAK (AINTZAT HARTU BEHARREKO ATALEN BATI LOTZEN BAZAIO, IDATZI MESEDEZ ZEINI DAGOKION, BESTELA EZ JARRI EZER):

1		
2		
3		

C. ADIERAZLEAK (GOGORATU NEURRI GUZTIEK ADIERAZLE BANA IZAN BEHAR DUTELA, IDATZI, MESEDEZ, ZEIN NEURRIRI DAGOKION ADIERAZLEA):

1		
2		
3		

HIZKUNTZA ESKUBIDEEN DEKLARAZIO UNIBERTSALA

41. artikulua

1.- Hizkuntza komunitate orok eskubidea du bere hizkuntza kultur adierazpen guztietan erabiltzeko, sostengatzeko, eta bultzatzeko.

2.- Eskubide honen egikaritzea erabateko gauzatze-bidea izango du, eta beraz, atzerriko kultura batek ezin izango du komunitate baten espazioa hartu.

42. artikulua

Hizkuntza komunitate orok eskubidea du berezko mundu kulturala erabat garatzeko.

43. artikulua

Hizkuntza komunitate orok eskubidea du bere hizkuntzan ekoi-tzitako lan guztietara iristeko.

44. artikulua

Hizkuntza komunitate orok eskubidea du kulturarteko programe-tara iristeko, behar adinako informazio-hedapenaren bidez. Ha-laber, eskubidea du laguntza eman dakien atzerritarrentzako ikas-keta-jarduerei, itzulpenei, bikoizketari, postsinkronizazioari, azpilitulugintzari eta antzeko ekintzei.

45. artikulua.

Hizkuntza komunitate orok eskubidea du lurraldeko berezko hiz-kuntzak toki nagusia har dezan kultur gertakarietan eta zerbi-tzuetan, hala nola liburutegiak, bideotekak, zinemak, antzokiak, museoak, artxiboak, informatika-ekoizpena, folklorea, kulturaren industriak, eta kultur bizitzatik sortutako beste gertakari guztiak.

46. artikulua

Hizkuntza komunitate orok eskubidea du bere ondare linguistiko eta kulturala zaintzeko, bai eta haien adierazpen materialak ere, hala nola dokumentu-fondoak, arte- eta arkitektura-lanak, mo-numentu historikoak, eta hizkuntzaren agerpen epigrafikoak

UNESCOren bizitasun mailak eta faktoreak

1. FAKTOREA: Hizkuntzaren belaunaldien arteko transmisioa

BIZITASUN MAILA

5	Arriskurik ez dago	Adin-tarte guztietako taldeek erabiltzen dute hizkuntza, bai eta hurrek ere.
4	Ahula	Zenbait eremutan haur guztiak erabiltzen dute hizkuntza, eta eremu mugatuetan haur guztiak erabiltzen dute.
3	Arrisku argian	Hizkuntza gurasoengandik gorako belaunaldiek erabiltzen dute gehienbat.
2	Arrisku bizian	Hizkuntza aitona-amonengandik gorako belaunaldiek erabiltzen dute gehienbat.
1	Egoera kritikoan	Oso biztanle gutxi erabiltzen dute hizkuntza., birraitona-amonen belaunaldia gehienbat.
0	Desagertua	Ez dago hiztunik.

2. FAKTOREA: Hiztunen kopuru absolutua

3. FAKTOREA: Hiztunen kopurua populazio osoaren arabera

BIZITASUN MAILA

5	Arriskurik ez dago	Denek hitz egiten dute hizkuntza.
4	Ahula	Ia denek hitz egiten dute hizkuntza.
3	Arrisku argian	Gehiengoak hitz egiten du hizkuntza.
2	Arrisku bizian	Gutxiengo batek hitz egiten du hizkuntza.
1	Egoera kritikoan	Oso gutxi hitz egiten dute hizkuntza.
0	Desagertua	Inork ez du hizkuntza hitz egiten.

4. FAKTOREA: Aldaketak hizkuntzaren erabilera-esparruetan

BIZITASUN MAILA

5	Erabilera unibertsala	Hizkuntza eremu guzietarako eta funtzio guztietarako erabiltzen da.
4	Parekotasun eleaniztuna	Eremu sozial edota funtzio gehienetan bi edo hizkuntza gehiago erabil daitezke.
3	Geroz eta eremu gutxiago	Hizkuntza etxeko giroan erabiltzen da bai eta funtzio askotan ere, baina hizkuntza menderatzailea familia giroan ere sartzen hasi da.
2	Eremu mugatuak edo formalak	Hizkuntza eremu sozial mugatuetan erabiltzen da eta funtzio batzuetan.
1	Eremu oso mugatuak	Hizkuntza eremu oso mugatuetan besterik ez da erabiltzen eta oso funtzio gutxitan.
0	Desagertua	Hizkuntza ez da eremu batean ere edo funtzio baterako ere erabiltzen.

5. FAKTOREA: Eremu berriak eta hedabideak

BIZITASUN MAILA

5	Dinamikoa	Hizkuntza eremu berri guztietan erabiltzen da.
4	Indartsua/aktiboa	Hizkuntza eremu berri gehienetan erabiltzen da.
3	Pasiboa	Hizkuntza eremu berri askotan erabiltzen da.
2	Konprometitua	Hizkuntza zenbait eremu berrian erabiltzen da.
1	Minimoa	Hizkuntza eremu berri gutxi batzuetan besterik ez da erabiltzen.
0	Desagertua	Hizkuntza ez da eremu berri batean ere erabiltzen.

6. FAKTOREA: Hizkuntzaren ikaskuntzarako eta irakaskuntzarako materialak

BIZITASUN MAILA

5	Ortografia ezarrita dago, bai eta irakurketa zein idazketarako tradizioa ere, gramatikak, hiztegiak, testuak, literatura eta eguneroko hedabideak. Idatzizko hizkuntza administrazioan zein hezkuntzan erabiltzen da.
4	Idatzizko materialak badaude, eta eskolan umeei hizkuntza horretan irakurtzen eta idazten ikasten dute. Administrazioan ez da idatzizko hizkuntza erabiltzen.
3	Idatzizko materialak badaude, eta eskolan umeei idatzizko hizkuntza ikas dezakete. Idatzizko baliabideen bidezko alfabetatzea ez da sustatzen.
2	Idatzizko materialak badaude, baina baliteke komunitateko kide batzuentzat besterik ez izatea baliagarriak; beste batzuentzat balio sinbolikoa izan dezakete. Hizkuntza horretan irakurketaren eta idazketaren ikaskuntza ez dago jasota eskola-programetan.
1	Komunitateak ortografia praktikoa ezagutzen du eta zenbait material idazten dira.
0	Komunitateak ez du ortografiarik.

7. FAKTOREA: Gobernuen eta instituzioen jarrerak eta politikak hizkuntzekiko, bai eta ofizialtasun estatusa eta erabilera ere

BIZITASUN MAILA

5	Berdintasunezko laguntza	Hizkuntza guztiak babesten dira.
4	Laguntza berezitua	Gutxiengoen hizkuntzak eremu pribatuko hizkuntza gisa babesten dira gehienbat. Hizkuntzaren erabilera prestigiotsua.
3	Asimilazio pasiboa	Ez dago politika berezitua gutxiengoen hizkuntzei begira; eremu publikoan hizkuntza menderatzailea da nagusi.
2	Asimilazio aktiboa	Gobernuak hizkuntza menderatzailearen asimilazioa bultzatzen du. Gutxiengoen hizkuntzek ez dute inolako babesik.
1	Derrigorrezko asimilazioa	Hizkuntza menderatzailea da hizkuntza ofizial bakarra, eta hizkuntza ez menderatzaileek ez dute inolako aitortzarik eta ez dira babesten.
0	Debekua	Gutxiengoen hizkuntzak debekatuta daude.

8. FAKTOREA: Komunitateko kideen jarrerak hizkuntzarekiko

BIZITASUN MAILA

5	Kide guztiek hizkuntzari balioa ematen diote eta sustatzearen aldekoak dira.
4	Kide gehienak hizkuntza mantentzearen aldekoak dira.
3	Kide asko hizkuntza mantentzearen aldekoak dira; beste batzuei ez die ardura edo bere galeraren alde egin dezakete.
2	Zenbait kide hizkuntza mantentzearen aldekoak dira; beste batzuei ez die ardura edo bere galeraren alde egin dezakete.
1	Kide gutxi batzuk besterik ez dira hizkuntza mantentzearen aldekoak; beste batzuei ez die ardura edo bere galeraren alde egin dezakete.
0	Inori ere ez dio ardura hizkuntza galtzeak; guztiek dute nahiago hizkuntza menderatzailea erabiltzea.

9. FAKTOREA: Dokumentazio-motak eta kalitatea

BIZITASUN MAILA

5	Bikaina	Gramatika eta hiztegi osoak daude, testu luzeak eta hizkuntza-materialen joan-etorri iraunkorra. Kalitate handiko audio- eta bideo-erregistro ugari dago jasota eta oharrak idatzita.
4	Ona	Gramatika on bat dago, bai eta zenbait gramatika onargarri, hiztegi, testu, literatura eta eguneroko hedabide ere. Kalitate handiko audio- eta bideo-erregistro nahikoak daude eta oharrak dituzte jasoak.
3	Balekoa	Gramatika on bat egon daiteke, edo zenbait gramatika, hiztegi eta testu, baina ez dago eguneroko hedabiderik. Kalitate desberdinetako audio- eta bideo-erregistro batzuk egon daitezke, eta maila desberdinetan oharrak dituzte jasoak.
2	Zatikakoa	Ikerketa linguistiko mugatu baterako gramatikaren zenbait zirriborro, hitz-zerrendak eta testu erabilgarri batzuk daude, baina estaldura nahikorik ez dute. Kalitate desberdinetako audio- eta bideo-erregistroak egon daitezke, oharrekin edo oharririk gabe jasoak.
1	Ez nahikoa	Gramatika-zirribororen bat, hitz-zerrenda laburrak eta testu-zatiak besterik ez daude. Ez dago audio- edota bideo-erregistrorik eta daudenek ez dute kalitaterik edo ez dute inolako oharririk jasoak.
0	Dokumentatu gabekoa	Ez dago inolako materialik.

III. HURRENGO URRATSAK

PROTOKOLOA JORRATZEKO URRATSAK ETA KRONOGRAMA

Honatx, eskema batean bilduta, protokoloa osatzeko aurreikusten diren urratsak:

LANKETA	EPEA
1. Talde Antolatzailea eratu, erreferentziak zehaztu eta Protokoloaren egitura nagusia definitu	2015-03-31 / 2015-07-31
2. Batzorde Zientifikoa eratu eta gidalerroak helarazi	2015-09-30 / 2015-11-15
3. Batzorde Zientifikoa bildu eta Protokoloaren eremuak zehaztu	2015-12-01/02
4. Gizarte Eragileen ekarpenak jaso	2016-02-20 / 2016-06-30
5. Talde Antolatzaileak ekarpenak bateratu	2016ko ekaina
6. Batzorde Zientifikoa bildu: Ekarpenak aztertu eta azken zuzenketak sartu	2016ko iraila
7. Talde Antolatzailea: Azken bertsioa onartu	2016ko urria
8. Gizarte Eragileen atxikimendua lortu	2016-09 / 2016-11
9. PROTOKOLOA AURKEZTU	2016ko abendua

Kontuan izan behar da datak ez direla erabat finkoak. Hau da, gizarte eragileekin egingo diren bi lanketak, ekarpenari zein atxikimenduari lotutakoak, modu iraunkorrean garatuko dira.

Horrekin batera, kontuan hartu behar da, prozesuak irauten duen bitartean bestelako aurkezpenak egingo direla interesa agertzen duten bestelako erakundeetan, edota interesgarritzat jotzen diren norbanakoei.

